

PRENTSA-OHARRA

Euskaditik doitasunezko metrologia industrialia bultzatzeko aliantza teknologikoa

- *ZEISS enpresa alemaniarrek eta Tekniker zentro teknologikoak ZEISS Quality Excellence Center inauguratu dute gaur goizean Eibarren*
- *Zentro Teknikerreko Metrologia laborategian kokatuta, gune berriak neurketa, kalibrazio eta kalitatearen kontrolerako zerbitzu aurreratuak eskainiko ditu, zero akatseko produkziarako trantsizioa errazteko*

[Eibar, 2025eko urtarrilaren 30an] – **ZEISS** enpresa alemaniarrek, metrologia multidimentsionaleko soluzioetan liderrak, eta **Tekniker** zentro teknologikoak, Basque Research and Technology Alliance (BRTA) aliantzako kideak, ZEISS Quality Excellence Center (QEC) aurkeztu dute gaur goizean Eibarren (Gipuzkoa). Gune berri horrek zerbitzu aurreratuak eskainiko dizkio industria-sareari neurketan, kalibrazioan, teknologiko aholkularitzan eta produkzio-sistemen kalitate-kontrolan.

Inaugurazio-ekitaldia gaur goizean izan da, Teknikerreko Metrologia dimentsionaleko laborategian. Bertan kokatuko dira neurketa-teknologiak, eta bertan izan dira, besteak beste, Anita Sonnenfroh, ZEISS Iberiako zuzendaria; Juven Mollá, IQS Iberiako zuzendaria; Jon Mabe, Teknikerreko Merkatu zuzendaria; eta Gorka Kortaberria, Teknikerreko Metrologia Industrialeko zuzendaria. Egunean zehar, espazio berriaren gaitasunak eta automobilgintza edo aeronautika bezalako sektoreen behar zorrotzeneri erantzungo dien ekipamendua aurkeztu dira.

"Teknikerren integratu dugu metrologian dugun azken teknologia, gure ekipo aurreratuenak barne, prozesu industrialetan ahalik eta zehaztasun eta fidagarritasun handiena bermatzeko. Neurketan dugun esperientzia eta Teknikerren espezializazio teknologikoa uztartuko ditugu, prozesuaren etapa bakoitzak kalitate-estandar altuenak betetzen dituela ziurtatzeko", nabarmendu du ZEISSeko Juven Mollák.

Neurketa industrialen zientzian oinarritutako espazio berriak ZEISSen azken belaunaldiko lau ekipo ditu, geometria libreetan, material berezietan eta doitasun handiko piezetan neurketa konplexuak egiteko gaitasun eta teknika desberdinak dituztenak. Gainera, bi aldeen arteko eta hirugarrenentzako prestakuntza sustatuko da, teknologiak behar bezala aplikatzen direla bermatzeko eta ahalik eta etekin handiena lortzeko.

"Lankidetzaz honek ZEISSen ekipo eta teknologietara sarbidea ematen digu, gure gaitasunak zabaltzeko eta neurketa industrialerako irtenbide osoagoak garatu eta ikertu ahal izateko", adierazi du bere aldetik Teknikerreko Gorka Kortaberriak.

Horrela, ZEISSek eta Teknikerrekin berrikuntza teknologikoarekin eta etengabeko hobekuntzarekin duten konpromisoa indartzen du guneak, ekoizpen-prozesu zehatzagoak bultzatuz eta zero akatseko fabrikaziorako trantsizioa bultzatuz.

ZEISSi buruz

ZEISS Industrial Quality Solutions, egoitza Alemaniako Oberkochen hirian duena, fabrikatzaile liderra da metrologia multidimentsionaleko soluzioetan. Automobilgintza, aeronautika, ingeniartza mekanikoa, plastikoa eta teknologia medikoa bezalako sektoreen beharrei erantzuteko diseinatutako teknologiak eskaintzen ditu konpainiak. Besteak beste, koordinatu bidezko neurketa-makinak, ordenagailu bidezko tomografia-teknologia eta X izpiak, sistema optikoak eta sentzore anitzekoak, kalitate industriala ziurtatzeko mikroskopia-sistemak eta metrologiako softwarea, industria-prozesuetan doitasuna eta fidagarritasuna bermatuz.

Teknikeri buruz

Tekniker fabrikazio aurreratuan, gainazalen ingeniartzan, produktu-ingeniartzan eta fabrikaziorako IKTetan espezializatutako zentro teknologikoa da. I+G+b-aren bidez gizarte osoari hazkundea eta ongizatea eransteko xedea dauka, eta enpresa-ehunduraren lehiakortasunari modu jasangarrian laguntzen dio. Tekniker Basque Research and Technology Alliance (BRTA) aliantzako kidea da.

Informazio gehiago:

GUK ► Unai Macias

unai@guk.eus | Tel. 690 212 067